

Orfeoi Txikiren kontzertua haur txiroen alde

Heldu den asteartean izango da saioa Donostiako Victoria Eugenia

Erredakzioa / Donostia

Orfeoi Txiki abesbatza, Jaione Escuderoen zuzendaritzapean eta Erretereria Musikala Musika eta Dantza Eskolako dantza taldeko ikasleak ariko dira asteartean, iluntzeko 20:00etan, Donostiako Victoria Eugenia. Unicef erakundeak antolatu du kontzertua, *Haurrek haurrentzat* lelopean, eta Boliviako Potosi eta Cochamba departamenduetako biztanleen txirotasuna arintzeko baliatuko dituzte irabaziak.

IRAGAN URTEKO saioak izan zuen oihartzuna ikusirik, Unicef erakundearen Gipuzkoako batzordeak II. Eguberriko Kontzertua antolatu du, heldu den astearterako Donostiako Victoria Eugenia, *Haurrek haurrentzat* lelopean. Iaz, milioi eta erdi pezeta (60.000 libera inguru) bildu zituzten, eta *Mitch* hurakanak Ertamerikan eragin zuen txikizioari aurre egiteko erabili.

Astearteko kontzertuko irabaziak, berriz, Boliviako Potosi departamenduko iparraldean eta Cochamba departamenduko iparraldean dauden nekazari zonetako txirotasuna arintzeko erabiliko dituzte. Sarrerak salgai dira, 2.000 pezetaren truke, Donostiako Victoria Eugenia antzokian bertan eta Antzoki Zaharrean, eta baita Servikutxa eta Telekutxa zerbitzuen bitartez ere.

Barandiaranen ipuin bat kontatuko dute

Donostiako Orfeoiaren anaia txiki Orfeoi Txiki abesbatzak Ibargutxi, Salaberri, Busto eta Britten konpositoreen piezak interpretatuko ditu kontzertuko lehen zatian.

Bigarren zatian, berriz, Guri-diren *Hamar euskal melodia* kantatuko dituzte Orfeoi Txiki kideek, eta Andoni Aleman narratzaileak *Aralarko dragoia* ipuin mitologikoa kontatuko du. Joxemiel Barandiaranek idatzi zuen ipuin hori, eta Imanol Urbietak moldatu du astearteko kontzerturako. Andoni Alemanen narrazioaren eta Orfeoi Txikik kantatuko dituen piezen gainean, Erretereria Musikala Musika eta Dantza Eskolako dantza taldeko ikasleek koreografia bat dantzatuko dute, Maite Eigurenen zuzendaritzapean.

Donostiako Orfeoiako zuzendari ohi Antxon Aiestaranek sortu zuen Orfeoi Txiki abesbatza, duela 11 urte, Orfeoia abeslari gaztez hornitzeko eta musika haur gipuzkoarrei hurbiltzeko. Aiestaranek hiru ataleko egitura osatu zuen abeslariak Donostiako Orfeoira heltzeko. 4 urtetik gorako haurrak Musika Tailerrean aritzen dira, 10 urtetik 14ra artekoak Orfeoi Txikin, eta Gazte Abesbatza da Donostiako Orfeoira iristeko abeslariak egin behar duten aurreko urratsa.

l a b u r r e a n



EDURNE KOCH

Ezeiza, Arribas eta Perea artisten margoak Hondarribian. Talde erakusketa bat zabaldu berri du Hondarribiko Atxeden arte galeriak. Jose Luis Ezeiza, Xabier Arribas eta Jose Perea artisten hainbat margo lanez osaturiko bilduma, hain zuzen. Heldu den urtarri-laren 10era bitarte izango da zabalik erakusketa.

Z I N E M A

■ Irungo IV. Zinema eta Bideo Gaztea Lehiaketa bihartik ostegunera bitarte izango da

IRUNGO Amaia kultur zentroan izango dira IV. Zinema eta Bideo Gaztea Lehiaketako emankizunak, bihartik heldu den asteko osteguna arte. Zinema ataleko irabazleak 200.000 pezeta jasoko ditu (8.000 libera inguru) eta bideo atalekoak, berriz, 100.000 pezeta. Ikusleek ere hautatu ahal izango dituzte, beren botoen bitartez, zinema eta bideo lan onenak. Antolatzaileak «oso pozik» dira aurten-go deialdiaren emaitzarekin; izan ere, guztira 160 bat film labur jaso dituzte

A R T E A

■ 20 artista baino gehiago ariko dira Donostiako Arte Azokan, gaur goizean

GIPUZKOAKO ELKARTE ARTISTIKOAK, Donostiako Udalak eta Donostia Kultura erakundeak antolatu dute gaurko Donostiako Arte Azoka, eta guztira 20 artista baino gehiago ariko dira Bulebarrean, goizeko 11:00etatik arratsaldeko 14:00etara. Artistek jendaurrean jardungo dute, eta ikusleak beraiekin mintzatu ahal izango dira erabiltzen dituzten teknika artistikoen inguruan.

Proust-en lana CD batean eskura daiteke, eta aukera ematen du idazlearen barruko mundua ezagutzeko

■ *‘Denbora galduaren bila’ lanak orain arte gutxi batzuen esku zeuden dokumentuak eskuragarri uzten ditu*

Efe / Paris

MARCEL PROUST idazle frantziarraren lanaren bilduma egin dute *Denbora galduaren bila* CDan, eta irakurleari aukera ematen dio hainbat joko interaktibotan barna ibiltzeko. XX. mendeko frantziar unibertsalenetakoaren lan honek literaturaren dimentsio ezberdin bat hartu du CDaren bitartez. Prousten lanari buruzko hamaika xehetasun eskaintzen ditu lan honek.

Nabegatzailearen bitartez orain arte gutxi batzuen esku zeuden dokumentuak eskuragarri dira. Horietako asko Frantziako Liburutegi Nazionalen gordelek daude, «asko kostatakoa baina dokumentu baka-rrak, arraroak eta interes handikoak eskuratzeko aukera ematen du. Gaiak, ideiak elkar lotuz sar daiteke CDaren pasarte ezberdinetara, eta edozein unetan alda daiteke eskakizuna egiteko modua, hainbat aukera eskaintzen baititu.

Jean-Yves Tadie editore, unibertsitate irakasle eta Prousten obraren ezagutzaileak egin du lan hau, eta berak adierazitakoaren arabera, «asko kostatakoa baina kalitate handiko lana da».

Prousten obraren 300 atal inguru, 350 dokumentu ikonografiko eta bideo 30 minutu biltzen ditu. Ikus-entzunezko horretan idazlearen lagunei edo haren obraren ezagutzaileei egindako sei elkarrizketa zati biltzen dira. Horrez gain, Prousten ikus-entzunezko biografia interaktiboa eskaintzen du.